— Dipt. Bizk., carp. 4-c
Cat. B-22

6 feuilles

(1)

# Le Livre de Ruth

## en biscayen

(Traduction d'Uriarte)

—

92. + 1

# Ruten liburuba.

## Lelengo capitulubа.

1. Juez baten egunetan, juezac Ysrael gobernetan ebenian, izan zan gosete andi bat lurrian. Eta Judaco Belengo guizon bat juan zan Moabeo lurrera arrotza leguez vicitera bere emazte, eta seme bigaz.

2. Bere icena zan Elimelec, eta bere emaztiarena Noemi: eta seme bijena batarena Mahalon eta bestiarena Celion Judacó Belengo Efratarrac. Eta Sarturic Moabeo lurrian, an vici ciran.

3. Eta il zan Elimelec Noemiren senarra, eta gueldituc zan Noemi bere semiacaz:

4. Ceintzubec ezcondu ciran Moabeo nescatillacaz, ceintzubetatic batari erichan Orfa, eta bestiari Rut. Eta vici izan ciran an amar urtian.

5. Eta bijac il ciran, au da, Mahalon eta Celion: eta gueldituc zan Noemi seme bijac eta senarra bagaric.

6. Eta erabagui eban Moabeo lurretic bere errira biurtutia bere erren bijacaz: entzun ebalaco esaten, Jaunac biurtu ituzala beguijac bere errirruntz, eta cer jan emon eutsela.

7. Ruten eban bada arrotza leguez vici izan zan lecutic erren bijacaz: eta Judaco lurrera biurtuteco bidian eguanian,

8. Esan eutseen: Zuace zuen amen echeetara; Jaunac eguin daguijala erruquija zubecaz, zubec eguin ceudubez leguez illacaz eta nigaz.

9. Atseguiña aurquitu eraguin daguizubela, adiu onac emoten deutsubezan senarren echeetan. Eta laztandu cituzan. Eurac jasoric boza, asi ciran negar eguiten,

10. Eta esaten: Zugaz juango gara zure errira.

11. Ceintzubei Noemic erantzun eutsen: Biurtu zaitece, ene alabac, cegaitic zatoce nigaz? Seme gueijago al daucat nic neure sabelian, nigandic beste senar batzuc icharon daiguezubezan?

12. Biurtu zaitece, ene alabac, eta zuace: cerren ni zartzaz amaituba nago, eta ez naz gauza matrimonioraco; eta gaur gabian seindun gueldituta, eta semiac eguin al banitu bere,

13. Eta icharon gura baceunzquique bere, ezcontzeco edadera eurac allegau ditecen artian, lenago zartuco cintzatequece ezcondu baño. Ez eguizube arren, ene alabac, onelacoric eguin: cerren zuben naibaquiac queituten dau niria, eta Jaunaren escua dago jasoric nire contra.

14. Ordubari eurac barriro asi ciran didarrez eta negarrez: Orfac laztandu eban bere amaguinarreba, eta biurtu zan: baña Ruth gueldiitu zan bere amaguinarrebagaz.

15. Ceñi esan eutsan Noemic: Orra nun zure cuñatia biurtu dan bere errira eta bere jaungoicuac gana: zuaz beragana.

16. Rutec erantzun eban: Ez zaguidaz guéijago jarraiqui ichi zaidazan, eta juan nadin: cerren joango naz, zuazan leco guztijetara: eta zu Vici zarian lecuban, ni bere vicico naz. Zure errija izango da nire errija, eta zure Jaungoicua izango da nire Jaungoicua.

17. Zu ilten zarian lurrian, an ilgo naz ni bere: eta an enguico dot nire sepulturaco lecuba. Jangoicuac castigau naguijala, erijotziac baño beste gauzac zugandic aldenduten banau.

18. Ycusiric bada Noemic, Rutec ain gogo sendoagaz erabaguin ebala beragaz juatia, ez jacon guéijago jarqui nai, ez beriagana juatéco esan eutsan ecer.

19. Eta bijac batera juan ciran, eta eldu ciran Belena. Sartu ciranian urijan, beriala zabaldu zan barrija guztijen artian: eta emacumiac esaten eben: Au da arako Noemi.

20. Ceintzubei esan eutsen: Ez eguidazube deitu Noemi (au da, ederra) ezpa bere deitu eguidazube Mara (au da, mingocha) cerren Guztija daiquianac mingoztasunez guztiz bete nau.

21. Urten neban beteric, eta Jaunac biurtu eraguin deust utsic. Cegaitic badá deituten deustazube Noemi, Jaunac umillau naben ezquero, eta Guztija daiquianac naibaguetu?

22. Biurtu zan bada Noemi Rut Moabitar, bere erreñagaz arrotza leguez vici izan zan lurretic: eta eldu zan Belena, garagarrac ebaguiten asten ciranian.

# Bigarren capituluba.

1. Eta Elimelec bere senarrac lucan senide bat, guizon altsua, eta guztiz aberatsa, Booz erichana.

2. Eta Rut Moabtarrac esan entsan bere amaguiñarrebari: Aguinduten badeustazu, juango naz campora, eta batuco ditut garagar epallen escuetatic igues eguiten dabeen garagar burubac, arrera ona airaquitiuten dodan edocein lecutan, familijaco guraso, nigapaco errruquiorra aguertuten danen batengan. Erantzun entsan Noemic: Zuaz ene alabia.

3. Juan zan bada, eta batuten cituzan garagar burubac epallen ostetic. Eta ain zucen campo aren jaubia zan Booz, Elimelec-en senitartecua.

4. Eta ona nun Booz bera eldu zan Belendic, eta agur eguin entsen garagar epallai, esaten ebala: Jaungoicoa izan dedilla zubecaz: eurac erantzun entsen: Jaunac bedeincatu zaizala.

5. Eta esan entsan Boozec, garagar zaintzen cituen mutil gaztiari: Ceñena da nescatilla au?

6. Ceñi erantzun entsan: Au da araco Moabtar, Noemigaz Moabco erritic etorri zana,

7. Eta escatu dau, ichi daguijola ibilten garagar epallen ostetic, quelditutuen diran garagar burubac batuten; eta goissetic orainartian dago campuan, une bacar baten bere, biurtu bagaric bere echera.

8. Esan entsan orduban Boozec Ruti:

Entzun eguizu, ene alabia, ez zaite juan beste solotara garagar burubac batutera, eta ez zaite bere aldendu lecu onetatic, ezpada ibilli zaite neure otsein nescatillacaz batera,

9. Eta jarraitu eguijezu garagarra ebaguiten diarduben lecura: cerren aguindu deutseet neure otsein mutillai, ez dedilla iñor lecetan sartu zugaz; baita bere egarrituco baciña, zuaz ontzija daguan lecura eta edan eguizu, nire otsein mutillac bere, edaten dabeen uretic.

10. Orduban Rutec macurturic arpeguijaz lurreraño, agur andi bat eguin eutsan, eta esan eban: Nundic eta nora niri, zure beguijetan gracija aurquitu izateco, eta izanic ni emacume arrotz bat, nor nazan jaquin gura izatia ontzat zuc euquiteco zorijontasun au?

11. Ceñi berac erantzun eutsan: Contau deuste cer eguin dozun zure amaguiñarrebiagaz zure senarra il jatsun ezquero; eta celan ichi dituzun zure gurasuac, eta jayo ciñan errija, eta etorri zarian, len ezagututen ez cenduban errira.

12. Jaunac emon daguizula zure eguite onen sarija, eta artu daguizula aloguer osua Ysraelgo Jaun eta Jaungoicuagandic ceñegana etorri zarian, eta ceñen egaen azpijan jarri zarian.

13. Erantzun eutsan Rutec: Aurquitu dot gracija zure beguijetan, o neure Jauna, bada poztu nozu, eta berba eguin dozu zure servitzari onen bijotzera, cein ez dan zure otsein nescatilletatic bategaz bere bardintuteco duin.

14. Eta Boozec esan entsan: Bazcaldutecó ordeba
danian, etorri zaite ona, eta jan eguizu oguija, eta busti
eguizu ceure copauba vinagrian. Jarri zan bada garagar
epaillen albo baten, eta artu eban beretzat aijaren zati bat,
eta jan eban, eta ase zan, eta sobrau zana gorde eban.
15. Eta jaguí zan andic garagar burubac
batutera, oi eban leguez. Eta Boozec aguindu entsen bere
otseiñ mutillai, esaten ebala: Berac zubecaz garagarra
ebaguiten jardun nai badau bere, ez eguijozube galerazo.
16. Eta zuben escumenetatic bere, ichi
eguijezube berariz jausten garagar buru batzubec, lurrian
egonic, batu daguizan lotsa bagaric, eta batuten dituzanian,
ez beguijo iñoc aguiracaric eguin.
17. Egon zan bada garagar burubac batuten
campuan arratsalderaño: eta atsinduric eta cigor
bategaz joric batu ebana, arraquitu eban garagar
ephi baten neurrija leguez, au da, iru modio.
18. Eta arturic eurac, biurtu zan urira,
eta eracutsi entsazan bere amaguiñarrebari: onezaz
ganera atera eban, eta emon entsan, bera aseta
gueldituten zan janaritic, sobrau jacona.
19. Eta esan entsan amaguiñarrebiac:
Nun ibilli zara gaur garagar burubac batuten, eta
nun biar eguin dozu? Bedeincatuba izan dedilla zugaz
erruquija eugui dabena. Eta adierazo entsan nogaz
biar eguin eban, eta esan entsan guizonaren icena,
ceñi esichan Booz.
20. Eta Noemic erantzun entsan:
Jaungoicuac bedeincatuba izan dedilla, bada
viciyentzat eugui eban borondate ona, asse bera danca

oraindic illentzat bere. Baitabere esan ebazan: Guizon ori gure senidia da.

21. Eta Rutec esan eutsan: Baitabere aguindu deust batu nadilla garagar epallacaz, garagarrac ebaquiteco demporiac dirauban artian.

22. Erantzun eutsan amaguiñarrebiac: Oba da, ene alabia, juan Baitiala garagar burubac batutera bere otsein nescatillacaz: bes teren baten garagar ondora juaten bazara, norbaitec galerazo ez daguizun garagar burubac batutia.

23. Batu zan bada Boozen otsein nescatillacaz, eta ibilli zan euracaz garagar burruban billa dempora guztijan, aric eta garagarrac eta garijac trossetan gorde eituzezan artian.

---

Yrugarren capituluba

1. Eta bere amaguiñarrebagana biurtu ezquero entzun eutsan oni: Ene alabia, zuri atseguiña billatu biar deutsut, eta zu ondo izateco moduba eguin biar dot.

2. Booz ori, ceñen otsein nescatillacaz zabiltzan campuan, gure senidia da, eta gaur gabian assetuten dau garagarra bere larriñian.

3. Garbitu zaite bada, eta igortzi, eta jantzi eguizuz soñecoric onenac, eta zuaz larriñera. Ez zaizala guizon orrec icusi, jatia eta edatia amaituten dabenartian

4. Eta lotara juaten danian, beguiratu

eiguzu ondo ceiñ lecutan lo eguiten daben: eta juango zara, eta jasoco dozu bera estalduta daguan capia oñen aldetic, eta etzungo zara, eta etzango zara an: eta berac esango deutsu cer eguiñ biar dozun.

5. Rutec erantzun eutsan: Eguingo dot, aguinduten deustazun guztija.

6. Eta juan zan larriñera, eta eguiñ eban amaguiñarrebac aguindu eutsan guztija.

7. Eta Boozec jan eta edan ebanian, eta pozchubago gueldituta zanian, eta juan zanian lotara escumen meta baten ondora, eldu zan Rut isilchuric, eta jasoric capia bere oñen aldetic, etzun zan.

8. Eta orra ze gaberdijan iratzartu zan guizona icaraturic eta izuturic icusiric emacume bat eguala etzunda bere oñetan.

9. Eta Boozec esan eutsan: Cer zara? Eta berac erantzun eutsan: Rut zure menpecua naz: zabaldu eguizu zure mantuba zure serbitzarijaren gañian, cerren nire senidia zara.

10. Eta Boozec esan eutsan: Jaunac bedeincatuba izan zaitiala, ene alabia, lengo zure ontasuna oraingoagaz goitu dozulaco: Ez zarialaco juan mutil gazte pobre, ez aberatsen billa.

11. Ez eguizu bada bildurric euqui, bada nic eguingo dot zugaz, esaten deustazun guztija. Cegaitic ece, nire urico ateen barruban bici dan gente guztijac daquie, zu zariala emacume birtutetsu bat.

12. Ez doc ucatu bere eguiten zure senidia nazala, baño badago ni baño urragocua

dan beste bat.

13. Atseden eguizu gaur gabian, eta eguna argituten dabenian, berac nai badau zugáz gueldituu senitasun urcuaren escubidez, izan dedilla ordu onian: barriz arec gura ez badau, Jaungoicua Vici dan leguez dirautsut, duda bagaric neuc artuco zaitudazala. Lo eguizu gossera artian.

14. Lo eguin eban bada bere oñetan gaba igaro zan artian. Eta jagui zan, guizonac alcar ezagutu al eguien baño lenago, eta Boozec esan eutsan: Beguira ez daguijala iñoc jaquin ona etorri zariala.

15. Baita bere esan eutsan: Zabaldu eguizu mantaba, ceñegaz estalduten zarian, eta eldu eguijozu escu bijaquin. Rutec zabaldu eban, eta euquiric eldu ta, neurtu cituzan sei modio garagar, eta imini eutsazan ganian. Bera euracaz cargauta sartu zan urijan,

16. Eta juan zan bere amaguiñarreba gana, ceñec esan eutsan: Cer eguin dozu, ene alabia? Eta Rutec contau eutsan, Boozec beragaitic eguin eban guztija.

17. Eta esan eban: Orra emen sei modio garagar emon deustazanac, esaten deustala: Ez dot gura biurtu zaitezala ceure amaguiñarrebagana escu utsacaz.

18. Eta Noemic esan eutsan: Ycharon eguizu, ene alabia, icusi daguigun artian cetan gueldituten dan gauza au: ceren Booz da guizon bat, gueldituco ez dana, esan dabena cumplidu artian.

# Laugarren capituluba

1. Ygon eban bada Boozec urico
atera, eta jarri zan an. Eta icussiric igaroten zala
araco senidia, ceñegaitic berba eguin dan, gojan,
deitu eutsan bere icenez, eta esan eutsan: Erdu onà
pusca baten, eta jarri zaite emen. Bera juan, eta jarri
zan.

2. Eta arturic Boozec urico zarretatic
amar guizon, esan eutseen: Jarri zaiteze emen.

3. Jarri ziranian, esan eutsan bere
senidiari: Noemí Moabco erritic biurtu danac
dauca salgueí, Elimelec gure anaijiaren campuáren
zati bat.

4. Gura izan dot zuc au entzun dagizula,
eta esan inguruban dagozan guztijez, eta neure
errico zarren arrian. Gura baldin badozu zuc bere
jaube izan senitasunaren escubidez erosi eguizu, eta
izan zaite bere jaube: barriz ori eguin gura ez padozu,
adierazo eguidazu, jaquin daguidan cer eguin biar
dodan, ez daguian ezguero beste senideric zu
baño, ceiñ zarian lelenguá, eta ni bigarrena nazana.

5. Eta Boozec esan eutsan:
Erosten dozunian Noemiren campua, ezcondu bere biar
zara Rut Moabtarragaz, ceiñ izan zan bere senar
zanaren emaztia, piztu eraguiteco zure senide zanaren
icenari bere herencijan.

6. Berac erantzun eban: Ycliten
deutsat senitasunaren escubidiari; ceren ez ditut
nic amaitu biar neure familijaco ondorenguac. Zuc

artu, eta eragui eguizu nire escubidia, ceñi borondate osuagaz ichiten deutsadala autortuten dot.

7. Eguan Ysraelen senideen artian anchiñaco usadijo bat, bacochac ichiten eutsanian bestiari bere escubidia, ichiera onec balijoco bebau, quenduten eban arec bere oñetacua eta emoten eutsan bere senidiari. Au zan cerbait ichiten zanaren ezagungarija Ysraelen.

8. Esan eutsan bada Boozec bere senidiari: Quendu eguizu zure zapatia. Eta berac beriala quendu eban bere oñetic.

10. Eta Boozec esan eutseen zarrac eta erri guztijari: Zuec zare gaur testigu, celan eguiten nazan Elimelechenac, eta Celionenac, eta Mahalonenac izan ciran gauza guztijen jaube, emoten deustazala Noemic:

10. Eta artuten dodala emaztetzat Rut Moabtar, Mahalon zanaren emazte izan zana, guizon il zanaren icena viztuteco bere herencijan, amaitu ez dedin bere icena bere famelijatic, anaijacagandic eta erritic. Zuec, diñot barriro, zare gauza onen testigu.

11. Atian eguan erri guztija, eta zarrac erantzun eben: Gueu gara testigu! Jaunac eguin daguijala, zure echian sartuten dozun emacume ori, izan dedilla Raquel eta Lia lacua, ceintzubec eguin eben Ysraelgo echia. Izan dedin virtutiaren egemplubd Efratan, eta eragui daguijan icen ospetsu bat Belenen:

12. Eta izan bedi zure echia

Fares, Tamarren eta Iudaren semearen echia lacua, Jaunac emacume gazte onegandic emon leusquizuzan ondorenguac gaitic.
13 Artu eban bada Boozec Rut, eta ezcondu zan beragaz, eta bici izan zan Rutegaz, eta Jaunac emon eutsan gracija seindun gueldituteco, eta seme bat eguiteco.
14. Eta emacumiac esaten eutsen Noemiri: Bedeincatuba izan deilla Jauna, ceñec ez daben ichi, gueldituten cedilla zure familija ondorengo bagaric, bere icenaco izanu eguijan Ysraelen.
15. Euqui daguizun zuc bere, noc poztu daguijan zure arimia, eta noc lagundu zure zartzan. Bada jaijo jatzu seme bat zure erreñagandic, ceñec maite zaituzan, eta zuretzat ascozaz obiago da, zazpi seme bacenuncaz baño.
16. Noemic arturic umia, imiñi eban bere altzuan, eguiten cituzala beragaz iñude baten eta umezain baten lanac.
17. Eta bere auzuetaco emacumiac poztuten ciriala beragaz batera, esaten eben: Seme bat jaijo jaco Noemiri, eta imiñi eutsen icena da Obed. Au izan zan Ysaien aita, eta au izan zan Davidena.
18. Ona emen Faresen guizadijac. Faresgandic izan zan sortuba Esron.
19. Esrongandic izan zan sortuba Aram, Aramgandic izan zan sortuba Aminadab,
20. Aminadabgandic izan

zan sortuba Nahason, Nahasongandic izan zan sortuba Salmon,

21. Salmongandic izan zan sortuba Booz, Boozgandic izan zan sortuba Obed,

22. Obedgandic izan zan sortuba Ysai, Ysaigandic izan zan sortuba David.